

www.noaia.com

Noaia !!



Zubietarrak,
laster festa giroan

Oiana Blanco,
Oiaro kiroldegitik
Olinpiar Jokoetara



Orain Olarrondon Menu Berezi goxoen...

28€
Bez-a barne

UDAKO MENU BEREZIA

ASTEARTETIK IGANDERA EGUERDITAN ETA
OSTIRAL ETA LARUNBAT GAUA BARNE!!

28€
Bez-a barne

Cavazko Koktaila otarrainxka piruletarekin
Misera entsalada, cherry tomatezko ozpin-olioa
(MISERA ERDIAREKIN!!)

Bieira labean erreta

Ganbak plantxan

Txuleta pikilozko piperrekin

Txokolatezko Krepak

Cava, Rioja Crianza, Lambrusco, Txuria

Kafea

ASTEARTETIK-OSTIRALERA ERE
EGUNEKO MENUA 11ETAN
(EGUERDITAN)

ERRESERBA BEHARREZKOA (GUTXIENEZ 24H)

OLARRONDO
JATETXEA

28€
Bez-a barne

Olarrondo Jatetxea
5 zenbakia. USURBIL
erreserbak: ☎ 943 360 376
www.olarrondojatetxea.com



ILLUNBE-GOIKOA

NEKAZALTURISMOA

Logelak
komuna eta TBrekin
Sukaldea
Jangela

www.nekatur.net

666 884 901 anaginaga@hotmail.com USURBIL

Albisteak iruditan !!

Pikaolako itxita, Atallun dago orain Garbigune berria

Kalezarreko Pikaola eremua itxita, astelehen honetatik aurrera Atallun kokatuko da Garbigune berria. Udal eta San Marko Mankomunitateko ordezkariak bildu ziren Garbigunearen inaugurazio ekitaldian. Aipatu moduan, jada erabilgarri dago.

Ingurumen alorreko zinegotzi Jose Maria Rivadeneyrak adierazi zuenez, Garbigune berriak hondakinen kudeaketa hobetuko du, bertan diharduen langilearen lan baldintzak ere hobetuko dira eta Atalluko instalakuntzek zerbitzu zabalagoa eskainiko dute.

Atalluko Garbigune berri hau, orain arteko ordutegi berean egongo da irekita; astelehenetik larunbatera.



MERTXE AIZPURUA ALKATEA, JOSE MARIA RIVADENEYRA ZINEGOTZIA ETA SAN MARKO-KO ORDEZKARIAK BATU ZIREN INAUGURAZIO EKITALDIAN.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	943 369 113	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KzGunea	943 023 684	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitate@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UNAI AGIRRE

Zaborra ala hondakinak

Berriz ere gaiarekin bueltaka gabiltza. Ezin dut nire harridura aurpegia kendu, batez ere PNVren ardura falta ikusita. Hondakinen gaia, benetan arazo bat da. Ez Gipuzkoan bakarrik. Larunbatean Olaztin ere (Nafarroa) manifestazioa dute errauketaren kontra. Gai korapilotsu honekin, argi esan behar da, bi aukera ditugu. Hondakinak gutxitu eta birziklatu ala zaborrarekin zer egin erabaki. Eta PNV bereziki bigarren horretan dabil. Sinadura bilketa, bai, baina zertarako? Atez atekoari ezezkua emateko. Besterik ez? Herri mugimenduak erraustegiari ezezkua planteatu zionean, horren orde zer egin planteatu genuen: murriztu, %80tik gorako bilketa selektiboa lortzen zuen sistema proposatu, eta gai organikoa konpostatu.

Ez dut inon ikusten atez-atekoaren kontra agertzen direnak, gaikako bilketan %35an bakarrik gelditzea proposatzen dutenik. Ez dut inon aurkitu erraustea proposatzen dutenik. Ez dut inon somatu krisi garaian hondakinen tratamenduan orain planteatu den diruaren bikoitza

xahutzea proposatzen dutenik. Baina hau guztia dute haien alternatiba. Gure lurraldearekiko ardura dutenak, edo izan behar luketenak, ez leudeke horretan ibili behar.

Zubietan ere aspalditik entzuten genituen herritarren eskaera ez-ofizialak kuantitatiboki antolatu nahian. Gauzak honela, Herri Batzarrari sinatutako eskaera helarazteko aukera eman genien nahi hau nahi zuten herritarrei. Baina PNV, bere erraustegi kuttuna defendatu nahian, erasoari ekin dio. Erabateko bide okerra hartu du. Zubietako Herri Batzarraren kontra. Jakinda ez direla alderdi politikoak aurkezten, baizik herritarrak bertan gaudenak, Herri Batzarra Bilduk erabiltzen omen duela adierazi du. Gezurrez apainduta gainera, esanez gaur egun 5. edukiontzia duten Donostiako auzoen artean dagoela. Eta Donostiak, ohiko edukiontziak bakarrik ditu Zubietan. Organikoarena ez.

Alderdiek ez lukete hondakinen gaia erabili behar politika egiteko. Baina are gutxiago Zubietako Herri Batzarra, Zubietar guztien instituzioa, iraindu behar.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

“Ia lau urte lortu ezinik”

Berandu baina seguru. Aste batzuk pasa diren arren, hementxe dituzue XXXVI. Santixabel

Bertsopaper Lehiaketako bertso sari-tuak. Jaietako bertso-saioan eman zen aditzera aurtengo irabazlearen izena:

Jon Aizpurua Esnaola. Zortzi bertso dira, *Ursus tibetanus* delako doinuak kantatzeko pentsatuak.

I
Ia lau urte lortu ezinik
Bizi osoko desira
Eta etsitzen hasi orduko
Ezustekoa, begira!
Hura aitaren irribarrea,
Amaren begi distira
Sentipen horren berezia da
Ezin dut hitzez deskriba
Berri guztiak haurdunaldi bat
Bezain ederrak balira.

II
Lehen egunetik ilusioak
Adrenalina, indarra
Hura lagunei, familiari
Dena kontatu beharra
Denborak ere bere bidea
Egin zuen tirri-tarra
Eta ohartu ginenerako
Txinperta bihurtu garra
Halako gauza txikia da ta
Axola duen bakarra.

III
Hilabeteak aurrera hala
Bisitak medikuari
Ekografiak ta odol probak
Umearen zelatari
Lehen irudiak, lehen ostikadak
Guraso berrion sari
Ta bapatean gutun azal bat
Gurutzatu salatari
Medikuaren begirada bat
Kosk eginez bihotzari.

IV
“46 kromosometan
Daukagu garen guziaz
Baina haur honek bat gehiago du
hor bere ahulezia”
Hortik aurrera ez nuen entzun
Medikuaren tesia
Hura bihotza gelditi ezina
Hura barne garraisia
Une batean aldatzen dira
Zoria eta bizia!

V
Etxera sartu, ate kolpea,
Egin da ixiltasuna
Sofa gorrian eseri eta
Ahaztu dut neska-laguna
Malko bakoitzak bigarren bat du
Ta hark bien oiartzuna
Ohe berean sartu orduko
Sentitu urruntasuna
Amets gaiztotan urtu aurretik
Esnatu da erantzuna.

VI
“Errua ez da umearena,
Ez duzu zuk, ez daukat nik
Gaur minak bahitu digun guztian
Izango dugu kemenik.
Ez dut etengo, hasieratik
Sentitzen baitut bizirik
Haur horrentzako eredu ere
Izan gintezke oraindik
Kromosometan ez dago ama
Sena hiltzeko indarrik”.

VII
Ezin ukatu beldur nintzela
Ametsak jauzi zirela
Nire barnean aitatasunak
Bazuela nahiko gerla
Mila liburu artean ito
Mirari bila bezela
Baina kostata ulertu nuen
Baliozko erregela
Haur horrek behar zuen guztia
Gure maitasuna zela.

VIII
Behin erditzeko unea heldu
Eta zalantzak akabo
Eskutik heldu, begirada bat,
“maitea zurekin nago!”
Ordu pare bat pasa orduko
Negar ezin ozenago
“Zatoz nigana, lasai txikia”
Ohiukatu arroago,
Down sindromea ez dela muga
Mundua sano badago.

Udako Antzerki Egunarekin pozik dira Txerriki taldekoak



Larunbatean ospatu zen Udako Antzerki Egunaren inguruko balorazio baikorra egin du Txerriki antzerki taldeak. Iragan asteburuan deitu zituzten hitzorduetara gerturatu ziren herritarrei eskerrak helarazi nahi dizkiete, NOAUA!-ra bidali duten balorazioarekin. Eta parte

hartzera animatu nahi gaituzte, irailean ospatuko diren kale antzerki saioetan eta baita IV. Topa Eszenikan: "Bost urte bete dira Txerriki sortu zenetik. Bost urteetan esperientzia eta bizipen ugari izan arren, orain hasi gara bidea egiten. Orain ikusten dugu aurrerantzean nondik jo dezakegun".

Buruntzaldeko udal ordezkarien ziztada



Etorkizun ekonomikoa bermatu eta Berria Komunitatea sendotzeko xedez, *Zure ziztada behar dugu* kanpaina egiten ari dira azken hilabeteetan.

Aurreko astean, Buruntzaldeko udal ordezkariak bat egin zuten Berriaren ekimen honekin. Alaitz Aizpurua zinegotziak ordezkatu zuen Usurbilgo Udala.

Energiaren Eguna

ospatu zen asteburuan

Energia aurreztu eta bere eragin-ekortasunaz herritarrak jabetu arazi. Hori izan zen helburu nagusia. Bestalde, gidatze eraginkorreko ikastaroa antolatu da datozen asteotarako. Interesdunek izena eman dezakete, udaletxera deituta (943 371951) edo hemen: energiarenegunak.com



FRONTOIAN EGIN ZIREN
EKITALDI GEHIENAK.

Porrotx, olioia

birziklatzeko ekitaldian

Sukaldean erabilitako olioia birziklatu eta berrerabil daiteke. Mezu horrekin aurkeztu zen olio erabilia biltzeko egitasmoaren kanpaina. Usurbilen 14 guneetan jasotzen dute gai hau: San Marko-ko kamioian, Garbigunean, hiru larrialdi guneetan, Alkartasunan, Imanol Txapartegi harategian, Aliprox-en, Alkorta Autozerbitzuak, Artzabal supermerkatua, Esnaola Echave, Otar Goxo, Txalaka fruta denda eta Eiza denda.



PORROTX, UMEZ INGURATUTA.

Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
943 37 29 37
Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK


ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Mertxe Aizpurua alkatearen balorazioa: "Inoiz baino gehiago, arduraz eta zuhurtziaz jokatu behar dugu"

Legegintzaldi berria abiatu zene-
tik urte bat igaro da. Aitzakia
honekin, udaletxean ordezkatu-
ta dauden alderdiengana jo dugu balo-
razio eske. Bilduko Mertxe Aizpurua
alkatearekin amaitutzat emango dugu
duela hilabete hasi genuen elkarrizketa-
erronda.

NOAUA! Udalaren egoera ekonomi-
koaz kezka agertu dute hainbat udal
hautetsik. Une honetan, ona ala txarra
al da Udalaren egoera?

Mertxe Aizpurua. Krisi ekonomikoak
guztioi eragiten digu. Inoiz baino gehia-
go, arduraz eta zuhurtziaz jokatu behar
dugu. Orain arte Udalak izan dituen
diru-iturriak gutxitu egin dira nabar-
menki; foru funtsaren murrizketa pairatu
dugu eta aprobetxamendu urbanistikoe-
tatik izan ohi diren diru sarrerarik apenas
dago gaur egun. Beraz, Usurbilgo Udalak
beste urteetan baino diru gutxiago izan-
go du kudeatzeko. Eta egoera honen
aurrean, inoiz baino gehiago gastu eta
inbertsioen gainean egotera behartuta
gaude.

Hori da egoera, eta alarmismoa piztu
gabe egin behar zaio aurre; gure ustez
egoera honetaz baliatzeak eta arrazoiak
beste batzuk izango balira bezala aurkez-
teak, alarmismoa piztu besterik ez du
bilatzen. Udal talde politiko guztiek
ondo dakite zein den egoera. Informazio
osoa eman zaie eta badakite zeintzuk
diren datu ekonomikoak. Gauzak zailak
badaude ere, remanente positiboa dago
eta Udalaren zorpetze maila ez da %7ra
iristen. Ez da kiebra egoera bat, norbai-
tek, maltzurki, aditzera eman nahi izan
duen bezala.

N. Krisiaren eraginatik inor ez dirudi
salbu dagoenik. Udalgintza eremutik
ere gauza handirik ezingo da egin, baina
hala ere, krisiari aurre egiteko zer nola-
ko bitartekoak jarri dira martxan?

M. A. Hitzarmen bat sinatu dugu
Buruntzaldeko udaletxeek. Hortik etorri-



GOBERNU TALDEKO HAINBAT KIDE, ERDIAN DA MERTXE AIZPURUA ALKATEA.

ko dira plangintzak eta diagnostikoak.
Eskualdeko ikuspegitik begiratu nahi
diogu krisiari aurre egiteko formulazio
berriari. Erronka da, eta horri eutsi nahi
diogu. Enpresa berriak bertan kokatzeko
ere saiakerak egiten ari gara.

"Sistema da porrot egin duena"

N. Aurtengo udal aurrekontuen aur-
kezpenean, krisi egoera honek luze jo
dezakeela aipatzen zenuten. Zer nolako
aurreikuspenak dituzue 2013rako?

M. A. Egoera nolakoa den ikusita, argi
dugu gauzak ez direla momentu batetik
bestera aldatuko. Are gehiago, krisialdi
hau ez da pasatzen diren horietakoa.
Sistema da porrot egin duena eta ez gara
itzuliko lehen zegoen egoerara. Beste sis-
tema bat eratu beharra dago eta eredu
horren alde egingo du, egiten ari da,
Bildu. Datorren urteari begira, beraz,
tentuz jokatu behar dugu. Badakigu ego-
erak okerrera jo dezakeela eta horren
aurrean orekatuko gara.

Hezkuntza arloan, talde eragile bat osatzeko asmoa

NOAUA! Irailerako parte hartze pro-
zesua abiatuko dela iragarri berri duzue.

Mertxe Aizpurua. Legegintzaldiko
erronka izango da. Eraikinen gaindi
doan planteamendua da. 0 eta 16 urte
bitarteko hezkuntza-eredu bateratua
landu nahi dugu, etorkizunerako usur-
bildarrok nahi dugun hezkuntza-ere-
dua, hain zuzen. Horretarako, parte-
hartze prozesua jarriko dugu martxan.
Talde eragile bat osatuko dugu, hezkun-
tzarekin zerikusi zuzena duten norbana-
ko zein taldeekin; eta bide batez, parte
hartzean trebatzeko balioko digu.

N. Parte hartze prozesuaren baitan

geratuko al da akaso eraikin berriaren
etorkizuna?

M. A. Bi gauza ezberdin dira eraikina
eta herri baten hezkuntza proiektua.
Hitzarmena pasa den urtean sinatu zen.
Azterketa ekonomikoak egin ondoren,
proiektua ez dela bideragarria ikusi zen.
Noski, ezin da bizi garen egoeran, bide-
ragarritasunik ez duen proiektu bati eus-
tea. Ikastola bera eraikin berriaren
proiektua berplanteatzen ari da eta
ondoren bideragarritasun ekonomikoa
aztertu beharko dugu berriz ere. Aldiz,
Usurbilgo hezkuntza proiektua defini-
tzeko prozesua abiatu dugu eta hori
herritar guztion artean egingo dugu.

Gazteekin elkarlanean aritzeko asmoa dute, “dituzten beharrak guztion artean asetzeko”

NOAUA! Hondakinak biltzeko eskumena Udalarena dela aldarrikatu eta eskumen hau errespetatzea eskatu berri diozue Aldundiari. Gobernu taldetik, nola bizi duzue hondakin kudeaketaren gaiarekin gertatzen ari dena?

Mertxe Aizpurua. Hondakin inguruan erabilpen politiko bat egin nahi da. Gipuzkoako Udalen gehien-go sailkako bilketaren alde agertu da. Horren aurka kanpaina politizatu bat ematen ari da. Deigarria da, benetan: Europako hainbat herrialdetan sailkako bilketa egiten da eta ez da halako zalapartarik sortzen. Bestalde, urteetan lanean ibili diren erraustegiak ixten ari dira Alemanian, esaterako. Usurbilen osasunaren eta eraginkortasunaren aldeko apustua egin zen. Aitzindariak izan ginen horretan eta orain,

Gipuzkoa osora zabaldu nahi da. Beste askok, dirudienez, nahiago dute berrogeita hamar urtez atzetik joan.

N. Gazte mugimendu berri bat sortu da herrian eta gaztetxeari buruzko hausnarketa betean egon dira. Herritar oroentzat irekia egongo den gaztetxe baten falta sumatzen dute. Diagnosi honekin bat dator zuen gobernu taldea?

M. A. Usurbilen gazteak herri dinamikaren zati dira. Eragile aktiboak dira, festetan ikusi ahal izan dugun bezala. Udaletik era positiboan ikusi dugu gazteek herriarekin duten inplikazio zuzena. Poztekoa da, benetan. Eta horretan jarraitu nahi dugu. Etengabeko kontaktuan eta elkarlanean aritzeko asmoa dugu, dituzten beharrak guztion artean asetzeko.



“UDALETIK ERA POSITIBOAN IKUSI DUGU GAZTEEK HERRIAREKIN DUTEN INPLIKAZIO ZUZENA”, AITORTU DIGU MERTXE AIZPURUA ALKATEAK.

“Aspalditik korapilatuta zeuden arazoak konpondu ditugu”

NOAUA! Zer nolako harremana duzue gainerako udal taldeekin? Nolakoa izan da lehen urtea?

Mertxe Aizpurua. Hasieratik azaldu genuen kudeaketa partehartzailea egiteko borondatea. Udaletxeko ateak lehen egunetik ireki zitzaizkion oposizioari. Informazio osoa eta gardena dute momentuoro. Tamalez, orokorrean oso ekarpen urria jaso dugula esan behar dugu. Gure jarrera erabat irekia izan da eta jarrera hori mantenduko dugu legegintzaldi osoan. Gure aldetik hori besterik ez dugu esan nahi.

N. Gobernu taldeari buruz: zertan asmatu duzue urte honetan eta zer hobetu nahi zenukete

datozen urteoi begira?

M. A. Eraginkortasuna lortu dugu: aspalditik korapilatuta zeuden arazoak konpondu ditugu. Hor dago esaterako, hainbat urtetan konpondu gabe egon den Zubietako frontoiaren afera. Korapiloa askatu eta frontoiaren zorra –ekonomikoki momentu zailenak badira ere– ordaintzeko bidean gaude.

Herriarekiko gertutasuna ere adierazi dugu: ez gara herriak aukeratu dituen ordezkari soilak: herriaren zati gara, eta herritarrek horrela ulertzen dute. Elkarte, herritar, talde, enpresa... guregana hurbiltzeko erraztasun guztiak ematen ditugu.

Gardentasuna ere azpimarratu

nahiko nuke. Udalak egiten dituen egitasmo guztien informazioa eskuragarri dago nahi duenarentzat.

Azkenik, lehen ere aipatu dugun zuhurtzia errepikatuko dut. Garai zailak dira guztiontzat eta Udalak ezin du dirua nola hala xahutu. Alarmismo guztien gaineratik zuhurtziaz jokatu behar da. Ez du balio dirua xahutzen ibili eta gero negarrez hastea. Gauzak tentuz egin behar ditugu eta horretan ari gara.

Datozen urteotan ildo honi guztiari eutsiko diogu; eta hobetze aldera, gure erronka udaleko zereginetan herriaren parte-hartze aktiboa sustatzea da. Hortan saiatuko gara.

“Aietek markatu zuen bideari jarraitu behar zaio”

NOAUA! ETak jarduera armatua behin-betiko amaitzea erabaki duela jakinarazi zuen iragan urrian. Bakegintzari zein normalizazio politikoari dagokionez, itxaropentsu izateko garaia dela uste al duzu?

Mertxe Aizpurua. Oraingoan, ETA izan da agente bakarra Aieten hitzartu ziren konpromisoak bereak egin dituen. Estatu espainolak eta frantsesak ez dute horrelakorik egin; aitzitik, Madrilgo Gobernuak aukera historiko honi oztopo bat besteren segidan jar-tzen ari da.

Aietek markatu zuen bideari jarraitu behar zaio, eskubideen errespetuan eta elkarrizketan oinarritutako prozesuari abiada emateko. Eta bultzada hori gauzatzeko gizartearen inplikazioa ezinbestekoa da. Konfidantza osoa dugu horrela izango dela.

MERTXE AIZPURUA

Kiroldegiko gestio arazoa aspaldikoa dela dio, “Luis Mari Ormaetxea bera alkate zenetik datorren arazoa da”

N. "Egin den auditoriak egoera oso larriak agerian jarri ditu; baina ezin dut gehiago publiko egin". Kiroldegiaren inguruan Hamaikabat alderdiko zinegotziak duela gutxi NOAUA!n esana. Hain kezagarria al da kiroldegiaren egoera ekonomikoa?

M. A. Barne auditoriak gestio arazo bat detektatu zuen Oiardo Kiroldegiaren kudeaketan.



AIETEKO ADIERAZPENAREN BERRI EMAN ZUTEN ORDEZKARIAK.

Aspalditik, baita ere Luis Mari Ormaetxea bera alkate zenetik datorren arazoa da. Esan bezala, gestio kontua da eta ez du beste “arrazoi ilun” edo publikoa egin ezin denik atzean. Bera alkate zenean egoera berdina edo okerragoa bizi zuen kiroldegiak. Bere garaian ez zen ezer egin horren aurrean. Orain aldiz, beste behin ere, urteetan errepikatu den arazo horri heldu diogu eta konpon-tzen ari gara.

N. Potxoenea inauguratzea egokitu zitzaion udal gobernu talde berriari. Potxoeneak eskaintzen dituen zerbitzuez baliatzen hasi al dira herriko taldeak?

M. A. Hasi dira, bai. Hasieratik Udaleko kultura eta euskara departamentuak bertan dira. Horretaz gain, herriko talde eta eragileek ere erabiltzen dute eraikina. Bilerak, prentsurrekoak, Udajolas-eko ekintzak... Herriarentzat egin zen kultur etxea eta herritarrak dira erabiltzen dutenak.

Lehentasuna eman nahi diote Ugartondori

N. Berriki, Ugarte baserrian etxebizitza berriak eraikitzeke urratsa eman duzue. Epeak zehazterik bai? Eta aurrerago, promozio gehiago izango al dira?

M. A. Ugarte ez da promozio berria, lehendik zetorren proiektuaren jarraipena baizik. Erakitzen noiz hasiko diren, promotoreen esku dago eta merkatuak esaten duenaren arabera hartuko duten erabakia da. Dena dela, Usurbilen aurrekusten eta onartuta dauden etxebizitzekin, datozen urteetan behar den etxebizitza kopurua asetzen dela uste dugu eta legegintzaldi honetan ez da gehiago planifikatu behar.

Gure aldetik, Ugartondoko Babes Ofizialeko etxebizitzak sustatu nahi dira; eta lehentasuna emango diogu proiektu honi.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

ALDAMU

KAL. NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak


USURBIL
© 663 08 76 71 • 943 24 34 65

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

2012 N!!San tioak

gehigaurri berezia





USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

☎ 943 36 46 00

www.lhusurbil.com

Jai zoriontsuak opa dizkizue!!!

Heziketa zikloetarako sarbide frogarako ikastaroak



**37 urte
Pertsonak hezitzen**

**Erdi eta goi mailako
zikloak A eta D Ereduak**

- Administrazioa eta kudeaketa
- Elektrizitate-elektronika
- Fabrikazio mekanikoa
- Ura eta energia
- Produkzio zerbitzu eta manten.

Etarte bidea 9, Zubieta

eskola@lhusurbil.com



BARAZAR
OSTATU-JATETXEA

Logelak bere komunekin
Afariak egunero
Bazkariak Igande eta Jailegunetan

Santio jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

943 36 33 58 ARBITZA BIDEA - ZUBIETA

taberna-jatetxea
ALAMANDEGI

*Santio jai
zoriontsuak
opa dizkizuegu*

☎ 943 36 28 49
ZUBIETA

Haurrak dibertitzeko eguna, uztailearen 27a



Iazko Santioetan ospaturiko Haurren Eguneko irudia iduzue ondoan. Aurtengoan zer izango ote dute? Erantzuna jakiteko, astebete baino ez da geratzen. Uztailearen 27an ospatuko da Haurren Eguna. 10:00etatik aurrera, goiz eta arratsalde hainbat jokoetan parte hartu ahal izango da. Eguerdian kalean bazkaldu, gerora txokolate gozoa dastatu eta buruhandiak ere iragarri dituzte hil honetako azken ostirala borobiltzeko. Eurei zuzenduriko beste hitzordua, uztailearen 29rako aurten. Goizeko 11:00etatik aurrera antzerkia eskainiko dute gaztetxo zubietarrek.

Etxekoak nagusi, hainbat ekitalditan



Zubietar bat baino gehiago izango dira, datozen Santioetako protagonistak. Lanean arituko direnez gain, ekitaldietan parte hartuko dutenak ditugu. Horien artean, txupinazoarekin batera uztailearen 25ean jaiei hasiera emango dien soka-dantza. Santio egun berean, 20:00etatik aurrera bertso saioa ospatuko da. Mantxi, Iñigo Izagirre eta Jokin Urangarekin batera, zubietar bat; Asier Azpirozek parte hartuko du ekitaldian. Eta beste hainbat zubietarrek; uztailearen 29an ospatuko den herri antzerkian.

Gozategi eta Oihan Vega, gaua egunari lotzeko



Ohi bezala, Gau Pasa Eguna San Inazio bezperakoa izango da. Zubietako urteko gaurik laburrenera aurten, Oihan Vega Gaztea irrati kateko esataria gonbidatu dute. Hark gertuko zein urrunagoko kantu ezagunak jarriko ditu gauerditik aurrera. Dantza giroa ziurtatua dago beraz hilaren 30ean, goizaldera arte. Gero, Gozategi taldekoen emanaldia izango baita. Aurtengo musika eskaintza, hilaren 27 eta 28ko kontzertuekin osatuko da. Itzartu eta Ingo al deu? taldeak gerturatuko dira ostiralean, eta uztaileko azken larunbatean, The Garax, Desegin eta Laiotz.

Zubieta eta Zabaleta aurrez aurre, herri kiroletan



Zubietako Herri Jaietan antolatu dituzten kirol hitzorduen artean, bada lehia giroa piztuko duen ekitaldi bat; herri kirol desafia antolatu dute, Zubieta eta Zabaletaren artean. Uztailearen 28an, 12:00etatik aurrera. Bazkalostean jarraituko du kirol festak, 17:00etatik aurrera ospatuko den bizikleta lasterketarekin. San Inazio egunerako ere kirol hitzordu gehiago; errebote partida goizean eta arratsaldean, Aratz Mugerza eta Irazu aizkolarien erakustaldia, baita Landarbide harri jasotzailearen saioa ere.

Egitaraua, Santio jaiak 2012

Uztailak 25 asteazkena: SANTIO EGUNA

09:00 Esnadeia Donostiako txistulari bandaren eskutik. Altzaaaaaa oyetik! Eun earra dao ta!



11:00 Meza nagusia.
11:30 Txupinazoa eta hamaiketakoa
Ondoren Soka-dantza.
Hasi denak dantzan!
17:30 Pilota partiduak:
Onenak irabaz dezala!
4 1/2ko partidua: Urmeneta / Jauregi. Ondoren, afizionatuak.
Ondoren Buruhandiak.
20:00etan bertsolariak:
Asier Azpiroz, Jokin Uranga, Iñigo Izagirre, Mantxi.

Uztailak 26 osteguna: OILASKO BILTZAILEEN EGUNA

06:00 Oilasko biltzaileen irteera
Uxue eta Lierni trikitalarien eskutik.
14:00 Oilasko biltzaileen itzulera eta azken dantza. Goiz guztin musika earra ta konpaniya hobia!

Uztailak 27 Ostirala UMEEN EGUNA

10:00 Jokoen hasiera.
14:00 Bazkaria (Bakoitzak berea ekar dezala, eta gure kontu postrea eta sorpresa).

16:00 Jolasen jarraipena.
Segi nekatu arte!
18:30 Txokolatada. Bizkotxo lehorra busti txokolatetan ezarririk ondo pasatzeko. Ondoren buruhandiak.
21:00 Herri afaria. Denok txartelak eosita eongo altzeate!
00:00tan ERROMERIA:
Dantza egiteko aukera aparta!
ITZARTU, INGO AL DEU?

Uztailak 28 Larunbata

12:00 Herri kirolak ZUBIETA VS ZABALETA (lokotxa biltzea, trontza, korrika, arto aletzea, txinga, sagar biltzea eta zaku karrera).
Atzoko parranda pasatzeko gai izango al gea?
17:00 Bizikleta lasterketa. Eutsi goiai neska mutilak!
Ondoren Pottokan ibiltzeko aukera eta sardin eta piper jana.
23:00 TRIKI-ROCK JAIK:
THE GARAX, DESEGIN, LAIOTZ.

Uztailak 29 Igandea JUBILATUEN EGUNA

09:30 Meza.
11:00 Gaztetxoan antzerkia. Aktore gaztetxoan Zubietatik. Hollywoodera bidean!
12:00 Kantujira Usurbilgo kuadrilarekin. Eztatirik prepatu kantatzeko!
14:00 Jubilatuen bazkaria.
16:00 Dantzaldi musikala. Guraso eta haur, animatu parte hartzera!
18:00 Gorritiren Showa.
Ondoren Buruhandiak.
22:30 Herri antzerkia. Ea zerrekin harritzen gaituzten aurtengoan!

Uztailak 30 Astelehena GAUPASA EGUNA

00:00 KONTZERTUAK:
OIHAN VEGA, GOZATEGI taldearekin goizalderarte dantzatzeko aukera.



Uztailak 31 Asteartea: SAN INAZIO EGUNA

09:00 Zikiro prestaketaren hasiera.
09:30 Meza.
11:00 Errebote partidua.
Onenak irabaz dezala!
14:00 Zikiro jana.
18:00 Aizkolariak: Aratz Mugerza eta Irazu. Harri jasotzailea: Landarbide.
Ondoren Erromeria plazan.
00:00 Jaien amaiera, traka, suzirik eta suzko zezenarekin!



Oharra: Jaietan gerta litezkeen ezberretan, Zubietako jai batzordeak ez du erantzukizunik.

Argazkiak: Zubieta Lantzen

2012
N!! Sanes
tebanak
gehigarri berezia



Jaiak hasteko, oilasko biltzera




Urdaigako bizileku eta baserriak, Txokoalde, Aginaga edota Santuenea inguruak zeharkatuko dituzte berriz, datozen Xanixtebanetan oilasko biltzera irtengo diren lagunek. Ekitaldi honekin emango zaie hasiera hain zuzen, aurtengo jaiari. Oilasko biltzera irten asmo dutenek, ordu laurden beranduago ekingo diote eguerdira arte luzatuko den ibilaldiari. Helmuga, Santueneko Aialde Berri sagardotegia izango dute. Bazkaltzeko bertan bilduko dira eta, 14:00ak alderako. Eguna borobiltzeko, kontzertu gaua ospatuko da Txokoaldeko Akerra Gaztetxean.

San Esteban eguna, asteburu atarian



Aurten, asteburu atarian, ostiralarekin ospatuko da San Esteban eguna. Eta auzotarrak izango ditu protagonista nagusi; goizeko meza saioa, zahagi banaketan bilduko dira haietako bat baino gehiago, gero herriko dantzarien emanaldia ikusteko. Helduenak, bazkaritarako Saltxipin. Eta arratsaldean, gazte eta nagusi, lehia sanoan ikusiko ditugu Urdaigako plazan. 17:30etatik aurrera, euren arteko jokoak ospatuko dira. Haurrei zuzendurikoak berriz, biharamunean, abuztuaren 4an. Goizetik hasita, marrazki lehiaketa eta jolasetan parte hartu ahalko dute.

Agirre, Maia eta Zubeldiaren bertso saioa



Aurten ere larunbatez burutuko dira herri afaria eta bertso saioa, abuztuaren 4an, 21:00etatik aurrera. Plazan bertan ospatuko den otordurako jan eta edaria norberak eraman beharko du. Trukean, Jai Batzordeak banatuko du kafea, postrea eta kopa. Afalostean bertso saioa ospatuko da. Bota Punttubako kide Txatxari gai jartzaile duela, Amaia Agirre, Jon Maia eta Iker Zubeldia (irudian) hirukotea igoko da Urdaigako oholtza gainera.

Jaiari agur, erromeria giroan



Hiru egun eta gauetako parrandaren ostean, igande Arratsaldean, erromeria giro betean agurtuko dituzte Urdaigako festak. Lehenik, 18:00etatik aurrera, emakumezko eta gizonezkoen arteko herri kirol lehia ikusi ahalko da. Indarrak berritzeko, hirugiharra banatuko dute gero. Xanixtebanei aurtengoz adio esateko, Elustondo anai-arrebekin (argazkia) dantza egiteko aukera egongo da. Goizean, meza, eta ondoren, hamaiketako eta toka txapelketa.

Egitaraua, San Esteban jaiak 2012

Abuztuak 2, osteguna:

OILASKO BILTZAILEEN EGUNA

05:45 Txupinazoa!!

06:00 Oilasko biltzaileen irteera.

14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria.

Aialde-Berri sagardotegian.

Gauean Akerra gaztetxean

kontzertuak.

Abuztuak 3, ostirala:

SAN ESTEBAN EGUNA

11:00 Meza nagusia.

Ondoren Zahagi Banaketa.

(Espumosos Txapeldunen eskutik)

eta Usurbilgo Dantza Taldearen emanaldia.

14:00 Jubilatuen bazkaria Saltxipi

jatetxean (Berriola Fagor eta

Ingemarren eskutik).

17:30 Auzotarren arteko jokoak.

Ondoren, buruhandiak.

23:00 Materia Grisekin reggae gaua.

Ondoren erromeria: Laket.

Abuztuak 4, larunbata:

UMEEN EGUNA

11:00 Marrazki lehiaketa.

Ondoren, haurren jolasak

eta buruhandiak.

15:30 Mus txapelketa, izen-ematea.

16:00 Mus txapelketa.

18:00 Umeentzako xexenak eta

pottokak.

Ondoren, txokolatada

eta buruhandiak.

21:00 Herri afaria (norberak

ekarria, kafea, postrea eta kopa

jai batzordearen eskutik).

Ondoren bertsolariak; Amaia

Agirre, Jon Maia eta Iker Zubeldia.

Gai jartzailea; Txatxari.

Gauean, erromeria: Laiotz taldea.

Abuztuak 5, igandea:

10:30 Meza.

Ondoren hamaiketako

eta toka txapelketa.

18:00 Herri kirolak.

Emakumezkoak eta gizonezkoak.

Ondoren hirugihar banaketa eta

Elustondo anai-arreben erromeriare-

kin festei amaiera emango zaie.

Jai batzordeak ez du jaiegun hauetan gerta daitezken kalteen erantzukizunik hartzen.

! ONDO PASA
SAN ESTEBANAK!



•Garaiko landareak zure lorategi eta balkoitarako. erramuak, zentruak eta landaretan aukera zabala hemen aurkituko duzu.

www.saltxipi-usurbil.com

SALTXIPI



JATETXEA



BERTAKO HAZTEGIKO MARISKOAK.
ESPEZIALITATEA: ZENTOLLO EGOSITA EDO LABEAN



ONDO PASA SANE STEBANAKI



ESPEZIALITATEA PARRILAN:

- Haragia (idi txuletoa eta azpizuna)
- Arraina (bisigua, erroboiloa, zapoa...)

GARAICO JAKIAK:

- txitxardinak, txipiroiak, hegaluzea, bakailo tortilla, onttoak...

Txokoalde 23 · USURBIL · 943 361 127 · 943 371 094

Kide berriak behar ditu Odol Emaileen Elkarteak

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak uztailearen 9rako deitu zuen hitzorduan, 60 herritarrek eman zuten odola. Haietatik bostek lehen aldiz, ekimeneko antolakuntzatik berri eman dutenez. Balorazio baikorra egin dute odol emaien elkar-tekoek, "benetan pozgarria. Hauei, eta etorriagatik ematerik ezin izan zutenei ere gure esker beroenak adierazi nahi dizkiegu".

Elkartetik berri eman dutenez, "bolondres berriak behar ditugu taldean ordez-

karitza hau aurrera eraman ahal izateko. Orokorrean, taldearen lana, emanaldiak antolatzea eta harremanak bai Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearekin bai Udaletxearekin izatea da. Erabakiak konpromezua eskatzen du, ahal bada behintzat, ez dadila izan gaur hasi eta bihar utzi. Taldean aurrera jarraitu nahi dugu, baina indar berriaren behar-rean gaude. Horregatik egiten dugu dei hau. Animatuz gero, harremanetan jarri gurekin". Interesdunek email bat bidali dezakete odolausurbil@begira.com helbidera edo 615 760 458 telefonora deitu.



ODOL BEHEKO ODOL EMAILEAK, URRIAN EGIN ZUTEN BILKURAN.

Hurrengo odol emate saioa, irailaren 3an izango da, ohiko leku eta ordutegian; ambulatorioan, 18:00-20:30 artean.

Bertako sagardoa, on-line jarri dute salgai

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak eta Merkatu enpresak ireki berri duten web orrialde berri bati esker, aurrerantzean bertako sagardoa Internet bidez erosteko aukera egongo da. Apuntatu, hauxe da web orrialde honen helbidea: www.sagardo.com edo www.sidranatural.com. Momentuz, hamar sagardotegik bat egin dute egitasmo berri honekin, baina pixkanaka herrialde mailako elkarteko partaide diren gainerako sagardotegiek ere euren edaria salgai jarriko dute.

Salmenta orri bat baino gehiago da sagardo.com. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko 50 sagardotegien eta ekoizpen sektore honen inguruko informazioa ere jasotzen baitu atari berriak. Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak babestu dute proiektu berri hau eta Merkatu enpresak diseinatu du web orria.

Baratze ikastaroa antolatu du Usurbiltzenek

Baratze ikastaroa antolatu du Usurbiltzen Elkarteak irailarako. Hiru saio hain zuzen, irailaren 9, 16 eta 23rako. Goizez izango dira, 10:00-13:00 artean. Interesdunek, izen emateko irailaren 2ra arteko epea dute. Iznea emateko hona deitu: 658 724 645.

Otarrak

Usurbiltzen elkarteko otarrak esku-ratzeko aukerak zabalik jarraitzen du. Lau lagunentzako dena 15 eurotan eskura daiteke, bi lagunentzako 8 euroren truke. Interesdunek usurbiltzen@gmail.com helbidera idatzi dezakete. Edo taldekoen bileratara agertu besterik ez dago. Hilabete bakoitzeko bigarren astelehenetan biltzen dira, 18:30etatik aurrera Artzabalena. Otarrak jasotzeko berriz, adi hitzorduari: asteartero, 19:00-19:30 artean, Bake Epaitegi atzealdean eskuratu ahal izango dira.

Gaztelekua, udako azken txanpan

Ekaina amaieraz geroztik, udara **E**begira antolatu duten egitaraua borobiltzeko gutxi geratzen zaie jada Gaztelekukoei. Uztailearen 30ean itxiko dute gunea, irailera arte.

Hona hemen, burutzeke gelditzen zaizkien ekintzak:

Uztailak 20, ostirala

11:00-19:00 Hernaniko igerilekura egun pasa. Nori zuzendua: DBH 1.

Uztailak 27, ostirala

16:00-19:00 Ur jolasak Artzabalena. Nori zuzendua: denentzat.

Uztailak 30, astelehena

17:30-19:30 Udako ekintzen argazkiak ikusi, Gaztelekua txukundu... Nori zuzendua: denentzat.

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

**BENTÅ
TABERNÅ**
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Olinpiar Jokoetarako prest da Oiana Blanco

Iritsi da bere kirol ibilbideko hitzordu garrantzitsuena. Otsaila bukaeran sailkatu zela jakin zutenetik, prestatzen aritu da, nahiz azken lau urteok, mundu mailako txapelketari begira lanketan igaro dituen. Astebete barru, Londresko Olinpiar Jokoetan izango da Oiana Blanco. Usurbil Judo Klubeko kidea domina bat eskuratzeko lehiatuko da uztailaren 28an, nahiz bere erronka, dena eman eta egindako lanarekin gustura geratzea den. Londresera abiatu baino lehen, elkarrizketatzeko NOAUA!rekin bildu da.

NOAUA! Nola zaude animu aldetik eta fisikoki Olinpiar Jokoei begira?

Oiana Blanco. Txapelketa hau hobeto prestatzeko denbora gehiago izan dugu. Alde horretatik gustura nago. Ondo sentitzen naiz, gogotsu eta ilusio handiarekin. Azkenean bizi osoa helburu honekin, eta nik diodana, behintzat gogoia eta ilusioa inork ez dizkit kenduko.

OIANA BLANCO

“Hainbeste denbora hau prestatzen egoteak eta honetarako bakarrik jarduteak lasaitasuna ematen dit”

N. Olinpiar Jokoetan parte hartuko zenuela urte hasieran jakin zenuen. Horrek ere lagunduko zizun pixkanaka datorkizuna barneratzen?

O. B. Egia esan hori baita. Azkenean denbora asko da jendeak esaten dizula jokoetara zoazela eta. Zoazela jakitean, momentu horretan ez duzu dena asimilatzen. Pixkanaka konturatzen joaten



OLINPIADAKO LEHEN EGUNETAN LEHIATU BEHARKO DU OIANA BLANCOK,

zara, lortu duzunaz. Pixkanaka noa barneratzen ez dela edozein txapelketa, bizi-tza guztia horretarako egon zarela.

N. Hau ere zure hileotako prestakuntzaren zati bat izango zen?

O. B. Bai gainera niri horrek asko eragiten dit. Txapelketa bat ondo prestatu dudala jakiteak segurtasuna eta lasaitasuna ematen dit eta gero agian momentuan, gauzak aterako dira edo ez, baina nik behintzat segurtasun hori dut. Alde horretatik ere, hainbeste denbora hau prestatzen egoteak eta honetarako bakarrik lanean jarduteak lasaitasuna ematen dit.

N. Astebete eskas Olinpiar Jokoak hasteko. Zer egutegi duzue?

O. B. Betiko sistema jarraitzen du, beste txapelketa guztietakoa. Uztailaren 28an dugu txapelketa. Goizean kanpo-

raketak, eta arratsaldean finalak. Alde horretatik guretzat ez dago aldaketa handirik. Tatamia bai, handiagoa izango da. Txapelketa batean jarri ziguten, eta aldea nabari da.

N. Zer erronkarekin zoaz Londresera?

O. B. Batzuk agian sailkatzearekin konformatzen dira. Nik argi dut aukerekin joan nahi dudala eta horregatik egon gara kanpoan prestatzen, hainbeste mimorekin, txapelketa hau. Gero han, neure helburua batik bat gustura aritzea da, ez sufritzea, neure lana ondo egitea, akatsik ez egitea, ez galtzea neure erru-gatik. Irabazten badidate aurkaria egun eta momentu horretan hobeagoa izan delako, gauzak hobeto egin dituelako izan dadila eta ez nik zerbait gaizki egin dudalako. Sentipen onarekin etortzea nahi nuke.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
 **teilatuak eta fatxadak**
943 37 38 79 - 620 80 01 86
 Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 Kale Nagusia 10, 1.C4
 Tlf 943 37 08 78
 20170
 USURBIL

“Iaztik hona, oso urte ona egin dut”

NOAUA! Honaino ailegatzeko ibilbidea luzea izan da, ezta?

Oiana Blanco. Olinpiar Joko hauetan parte hartzeko erronka, 2008ko Pekineko jokoetan hasi zen. Orduan esan nuen, hurrengoetan egon nahi nuela. Aurrekoetarako bai eman zizkigutela azken orduko aukera batzuk. Joan ginen azken sailkapen txapelketetara, baina inolako aukerarik gabe. Sentsazioa izan zen, ez zirela aprobeixatu aukera horiek. Orduan, argi genuen, oraingo honetan hori ezin zela berriz pasa. 2008-2009 denboraldian, burua sartu behar genuen, aurtengo jokoetarako plaza bat lortzeko. 2009an munduko txapelketan bigarren, oso ondo, 2010ean europarrean brontzea. Eta gero egia esan, beheraldia bezala etorri zen. Txapelketa askotan dominak lortzear, bosgarren postuan. Hor zaude baina ez duzu bukatzen, azkenean frustrazioa da, disgustura, sufritzen zaude. Iazko ekainean Madrilen lortu genuen urrezko domina eta iaztik hona, oso urte ona egin dut.

N. Nola bizi dute zure ingurukoek,

senide edo judo ikasleek, zuretzat garrantzitsuena den kirol hitzordu hau?

O. B. Ikasleek komunikabideetan ikusi naute, batzuek ez dute ondo ulertzen zer den, baina badakite zerbait garrantzitsua dela. Etxean, une txarretan senideei tokatzen zaie laguntzea, egunero hor daudenak beraiek dira. Niri kostatzen zaidan bezala, beraientzat ere berdina izan da. Eta klubekoak berdin, azkenean egunero beraiekin ari zara entrenatzen. Beraiek dira nire lankideak eta beraiek bizi dituzte neure momentu on eta txarrak. Nik uste denon lana dela, eta azkenean aspektu guztiok lagundu dutela hau lortzea.

N. Denak Londresera daramatzazu zurekin?

O. B. Etxekoak, nik ezer esan gabe apuntatu dira jada. Badakit han egongo direla eta bukatzen dudanean beraiekin egoteko aukera izango dudala. Barruan ez bada kanpora aterako naiz eta bizipen hori beraiekin batera biziko dut. Egunero beraiekin pozak eta penak denak pasatzen ditudanez, bizipen hori partekatzeko beraiek han egoteko aukera hori izatea,



2009AN BIGARREN IZAN ZEN MUNDUKO TXAPELKETAN.

neuretzat oso garrantzitsua da.

N. Jokoei begira, bada nabarmendu nahi zenukeen beste aspekturik?

O. B. Niretzat normalak diren gauzak. Azkenean lagun artean kalean egon eta afaltzera etxera joatea. Nahi dudalako noa, ez da inolako sakrifizioa. Ingurukoek gauza txiki horiek denak ulertzen ikasten dute. Nahi dudalako nago honetan. Gero, psikologikoki baita. Prestakuntza fisikoa oso entzuna da. Baina agian, prestakuntza psikologikoa-rena jendeari arraroagoa egiten zaio. Baina neure entrenamendu saioen parte garrantzitsua da.

Pala txapelketako protagonistak

Irudian dituzue aurtengo Pala Txapelketako finaletan aritu diren jokalariek. Hauek izan ziren emaitzak:

Nesken teniseko pilota txapelketan:

Josune Arruti-Olatz Goenaga 19
Itziar Elozei-Nere Eizagirre 20

Nesken gomazko pilota txapelketan:

Aitziber Aranguren-Dolo Errasti 25
Nagore Leoz-Rosa Uribe 14

Mutlen gomazko pilota txapelketan:

Xabier Errasti-Imanol Esnaola 25
Unai Loidi-Josu Errekondo 7



ARGAZKIAN, SARITUAK, FINALISTAK ETA ANTOLATZAILEAK.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

txirriStra
TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Pirinioetan barrena ibili dira Andatzakoak

Pasa den aste bukaeran, Andatza Mendi Kirol Elkarteko 37 mendizale Pirinioetan izan ziren, Piedrafitako zirkoan, eguraldi ederraz lagundurik. Argazki hau eta ondoko kronika igorri digute.

“Ohikoa dugun moduan, goizean goiz geratu ginen Oiardoko sarreran bakoitzak bere traste guztiak autobusean sartu eta bidaiarekin hasteko. Lehenengo geltokia Puente la Reina izan genuen; kafetxo bat hartu hobeto esnatzeko, eta ogia erosi hurrengo egunetako bazkarietarako.

Azkenik, autobusean bidaiari amaiera emateko Sallent de Gallegora iritsi ginen. Bertan, motxilak etab. hartu, erroa erosoekin prest jarri eta gorantz abiatu ginen. La Sarratik barrena, Arrieleko lakuetara joan ginen. Han ginela bazkaltzeko tartea hartu genuen, baita bat edo bestek bainua hartzeko ere. Zenbait aurrerago geratzen ziren lakuak ikustera joan ziren, beste batzuk Palas-era igotzeko asmoarekin abiatu ziren, eta beste batzuk nahiago izan zuten bertan geratu.

Laku hauetatik Respomusoko aterpera joan ginen, han dutxa hotz-bero bat hartu, lasai egon pixka batean eta afaltzeko asmoarekin.



ANDATZAKO KIDEAK, PIRINIOETAN EGINDAKO ARGAZKIAN.

Igande goiza, aterpean gosari eder batekin hasi genuen, ondoren zazpi t'erdia inguruan ibilbidearekin hasteko. Respomusoko aterpetik GR-11 ibilbideari jarraitu genion eta Tebarraiko leporaino dagoen malda gogorra igaro ondoren, gailurrerantz joan ginen gailurreko 2916 metroara iritsiz.

Goian ginela begi bistan genuenez gozatu tarte batean, zenbaitek dantza egiteko indarra ere izan zuten. Balaitus, Midi d'Ossau, Vignemale eta hainbat gailur eta aran bistan genituen. Derrigorrezko argazkiak atera eta behe-runtz joan ginen. Bidean otordutxo bat egin, eta zenbaitek gehiago igotzeko zituzten nahiak agerian geratzea bat izan

ziren. Azkenik, ausart batzuk Infiernoseso gailurrerantz igo eta beste batzuk beheruntz, Panticosa bidetik.

Beheranzko bidean Ibones Azules-etik pasa eta Bachimañako urtegiko aterpe berria ezagutu ondoren, Baños de Panticosara iritsi ginen. Han, putzuan, azken bainuak hartu ur frexko frexkotan, denok elkartu eta autobusean etxeranzko bidea hasi genuen aste bukaerako bidaiari amaiera eman ahal izateko”.

Irailaren 2an, Enkarterrietara

“Ordunteko mendietan, Lanzas Agudasetik Balmasedara ibilbidea egiteko asmoz” joango dira. Honen berri web orrian emango dute laster.

Zubietarrak,

garaipenaren atarian

Donapaleun jokatu zen Euskal Herriko Errebote Ligako 2. mailako finala, Angeluko Hardoytarren eta zubietarren artean. Finala galdu egin zuten arren (13-7 azken emaitza), txalotzeko moduko txapelketa egin dute zubietarrek.



PARTIDA ONDOREN, SARI BANAKETA EGIN ZEN. EZKERRETARA DIRA ZUBIETARRAK.

JUANTXO
 BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
 943 370 008

Otar-Goxo
 Elikagaiak

Zubiaurrenea, nº2
 943 36 55 81
 20170 Usurbil

Errazkin S.L.
 igeltseritza orokorra

943 24 01 76 eta
 649 435 470
 errazkinsl@euskalnet.net

Oztaran auzoa 33, URNIETA

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
 izagirreletrizitatea@hotmail.com
 Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Agenda !!

Uztailak 20 ostirala

11:00-19:00 Hernaniko igerilekura egun pasa. Nori zuzendua: DBH 1. Antolatzailea: Gaztelekua.

Uztailak 25/31

- Santio festak Zubietan (ikus egitaraua 12. orrialdean).

Goardiako farmaziak

Uztailak 19, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 20, ostirala
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 21, larunbata
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 22, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 23, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 24, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 25, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 26, osteguna
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 27, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 28, larunbata
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 29, igandea
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 30, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 31, asteartea
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

* Larunbatetan, *Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.
Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA 25600 zenbakira (1,39 BEZ barne).

Urte osoko egutegia: www.noaua.com, "Zerbitzuak" atalean barrena.

Atxegaldeko jaiak, abuztuaren 31tik irailaren 2ra

Auzoetako jaiak segidan datoz egunotan. Zubietan Santioak, Urdaigan San Estebanak... Eta abuztu amaieran Atxegaldekoak bueltan. Oraingoan, iraileko lehen aste-buruan egokitu dira.

Auzoko Jai Batzordeko kideak diseinatua dute hiru egunetarako jai egitaraua. Festak hasteko hilabete pasatxo falta den honetan, behin behinekoa da jarraian datorren ekitaldi zerrenda hau. Oraindik aldaketaren bat edo beste egon liteke, antolakuntzatik berri eman dutenez.

Abuztuak 31 ostirala

17:30 **Herri poteoa**
Dinbi-Danba batukadarekin.
20:00 **Txupinazoa.** Jarraian, txoznaren irekiera eta luntx mundiala. Ondoren, buruhaundiak.
23:00 **Kontzertuak:** Urrezko muxkerrak, Luz de putas eta Gabezin.

Irailak 1 larunbata

11:00 **Umeentzako jokoak eta opari banaketa.** Ondoren, buruhaundiak.
14:00 **Herri bazkaria** (norberak ekarrita).
16:00 **Mus txapelketa** (15:30-16:00 izen ematea).
18:30 **Txokolatada.** Ondoren, buruhaundiak.
21:00 **Mozorro-kantu afaria** Josunerekin.
Gauean kontzertuak: Ingo al deu eta Dj Gude.

Irailak 2 igandea

12:00 **Aizkolariak.** Ondoren, salda eta pintxo banaketa.



HERRI POTEODAREKIN ETA TXUPINAZODAREKIN HASIKO DIRA ATXEGALDEKO FESTAK.

16:30 Toka txapelketa.
18:00 Tortilla lehiaketa.
Ondoren, haurrentzako ipuin kontaketa.
22:30 Azken traka.

Txokoak antolatu ditu Antxomolantxak, irailaren 3tik 7ra

Aginagako Antxomolantxa Elkarteak txokoak antolatu ditu haurrentzat, iraileko lehen asterako; hau da, irailaren 3tik 7ra. Ludotekan burutuko dira txoko hauek, goizero, 10:00-13:30 artean. Izen emateko interesa dutenek, 610 875 287 telefono zenbakira deitu dezakete. Txokoak azkenekoz ekaina amaieran antolatu zituen Antxomolantxak, eta primeran pasa ahal izan zuten haurrek.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Aliprox
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

**ETXETRESNEN
KONPONKETA**
MARKA GUZTIAK, PREZIO ONEAN
645417665
(XABIER)
Usurbil

ETXEBIZITZA

- Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880
- Pisu alokatzen da Kaxkoan, Txaramunton kalean: 3 gela, sukalde, bi komun eta sala. Garajea aukeran. Abala eskatuko da. 656 75 70 73.
- Pisu bat alokatzen da Santuenean. 679 366 415.
- Pisu salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462
- 3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurra kalean. 661 43 63 53.
- Lau logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. Informazioa: 659389707 / nerezabala1@gmail.com
- Pisu alokatzen Santuenean, 65m berriua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.
- Etxe bat alokatzen da Artaxonan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, lorategia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)
- Etxe salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairuko, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailan. 665720913 / 665720914
- Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukalde eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.
- Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berriua. 3 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.
- Pisu salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 31 milioi pezeta. 943370957.
- Aukera ezin hobea! Etxe salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.
- Pisu alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.
- 3-5 gela arteko pisu alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.
- Pisu salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.
- Pisu salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berriua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukalde, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisu salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara, igogailua. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabala, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, dena berriua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
- Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukalde, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Inaki).
- Pisu alokatzen Atxegalden. 3 gela, sukalde, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekinetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisu salgai. Dena berriurik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gautetan deitu).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian. 943 372 256.
- Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.
- Bazu komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

- la1@gmail.com
- Scooter bat salgai, 450 euro. Egoera onean. 678 603 659.
- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat... Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Sukaldari bat behar dugu, Xarman. 943 368 771.
- Larunbat eta igandearako barrako langile bat behar da Xarma tabernan. 943 368 771.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska bat. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

Lan-eskaintzak

- Usurbilen bizi den pakistandar batek, ingeles klaseak emango lituzke gaztelania edo euskararen truke. 632 418 008. Raheem Abdul.
- 21 urteko neska usurbildar euskaldun bat eskaintzen da haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)
- Ingeles natiboak klaseak eskaintzen ditu uztailean Usurbilen, 10 urteko gorakoei 686 499 775 (Toby)
- Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Inaki).
- Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.
- 18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tf.: 626 735 354.
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.
- Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.
- 17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)
- 16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerrako lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.
- Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.
- Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.
- Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568
- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tf.: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
- Umeak zainduko nituzke arratsaldez edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
- Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatu eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatu naiz. Badut esperientzia. 652712099.

- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziarik eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritza aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendarri lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendarri moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziarik eskaintzen da gautetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan. Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Kotxe kapota bat dohainik. Norbaitek nahiko balu deitu telefono honetara. Tel. 657 714 355.
- Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.
- Mutil baten txamarra, talla 10-12, galdu zaigu frontoian. Beig eta urdin kolorekoa. 656 702 957.
- Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223
- Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon" en. Aste Santuko bigarren astea, uztaila eta iraila. "Punta Lago" kanpian. 634 443 909.
- Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.
- Haur sila eta kapazoa erosiko nuke: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451
- Akordeoia saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Hemengo intxurrak salgai. 943 67 11 60.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

JAIOTZAK

Olaia Lizarralde Galardi, apirilak 23.
Julen Uranga Salsamendi, maiatzak 5.
Aimar Sanchez Arrese-Igor, maiatzak 15.
Sara Pache Urdangarin, maiatzak 28.
Hodei Sarasua Galan, ekainak 6.
Markel Korta Fernandez, ekainak 17.
Lide Fernandez Palma, uztailak 6.
Enaitz Garcia Usandizaga, uztailak 8.



Zorionak Ioritz! Uztailaren 22an 14 urte. Muxu handi bat. Aita, ama eta Aroa.



Zorionak Aratz! Zure 5. urtebetetzean merendola goxoa prestatu. Muxu bat Unax, Oihan, June eta Anjeren partez.



Zorionak Irati! Abuztuaren 5ean, 2 urte beteko dituzu. Muxu handi bat etxeko erreginari, familiaren partez.



Zorionak! Unaxek 8, Enautek 11 eta Nuriak?? Muxu mordoia etxekoan partez.



Zorionak Guille! Zure Usurbil-cup izarrak urte askotarako fitxa berritzen zaitugu. Muxuak eta ondo pasa udara.



Urte askuan boskote!!! Uztailaren 28tik abuztuaren 14ra badugu zer ospatua. Zorionak etxeko guztien partetik.



Oporretara goaz

datorren aldizkaria irailaren 7an

Karobi

nekazaturismoa

Ondo pasa
jaietan!



Petritza bidea, ZUBIETA

• Logelak bainugelarekin

943 360 635 / 605 704 813

www.iruindagardotegia.com
www.astiazaransagardoak.com



Ondo pasa Santioak!

Iruin Sagardotegia eta Astiazaran Sagardoak

Petritza bidea z/g, Zubieta
943 361 229

SANATORIO  de USURBIL
USURBILgo SENDATEGIA



San Esteban, 48. Tel: 943 36 11 24 Fax: 943 36 28 98
info@sanatoriodeusurbil.com www.sanatoriodeusurbil.com



Ondo igaro festak!



Ondo pasa Santiotan!!

